

**Ongizate eta zorientasun hautematea
(2022 otsaila)
Prensa oharra**

SARRERA

Azterlan honen asmoa EAEko herritarrek euren ongizateari buruz duten hautematea aztertzea izan da, horretaz gain ongizatea eta zorientasuna azaltzen dituzten aldagaiak identifikatzeko ahalegina ere egin da. Lan honen testuingurua 2021ean nazioarte mailan gaia aztertzeko egindako hainbat ikerketa izan dira. Euskadin landa-lana 2021eko abenduaren 13tik 20ra bitartean egin zen.

ONGIZATEA

Ongizate-maila handia Euskadiko biztanleen artean

Euskadiko biztanleak nahiko pozik daude daramaten bizimoduarekin, hots, hamarretik bederatzik (% 90) adierazi dute oso edo nahiko pozik daudela daramaten bizimoduarekin. Gainera, norberaren bizitzarekiko poztasuna zertxobait handiagoa da orain aurreko neurketetan baino. Halaber, Europako batezbestekoa baino handiagoa da.

Ongizatearen eskalan, hau da, 0ak "bizitzarik okerrera" eta 10ak "onena" adierazten duten eskala batean, Euskadiko herritarrak 7,1ean kokatu dira. Datu hori Nazio Batuek zorientasunari buruz argitaratutako txosteneko datuekin alderatuz gero (World Happiness Report, 2021), Euskadi 13. postuan legoke; lehen postuetan dauden, Finlandiaren (7,9), Islandiaren (7,6), Danimarkaren, Suitzaren eta Herbehereen (7,5) atzetik. Espainia 24. postuan legoke eta Frantzia 20.ean.

Euskadiko biztanleriak etorkizunari buruz ere hautemate positiboa du (10etik 7,6, hau da, egungo egoerari buruzko hautematea baino bost hamarren handiagoa). Egungo egoeraren hautematea etorkizuneko aurreikuspenekin konbinatuz gero, % 45ek uste dute bost urte barru egun baino egoera hobean egongo direla, % 29k egungo mailan mantenduko direla eta % 19k bere egoerak okerrera egin dezakeela.

Gainera, Euskadiko herritarren % 71k konfiantza dute etorkizunean.

ONGIZATEA AZALTZEN DUTEN FAKTOREAK

Aldarte emozional positiboa zuzenean lotzen da ongizate mailarekin

Egun osoan zehar emozionalki ondo sentitzeak lotura estua du biztanleriaren ongizate sentsazioarekin. Hautemandako batez besteko ongizatea puntu bat handiagoa da bezperan ondo sentitu zirela diotenen artean, hau da, errespetatuak eta gustura sentitu eta barre asko egin zutenen artean. Ongizatearen eta zorientasun sentsazioaren arteko korrelazioa ere oso handia da (0,6 1etik). Argi dago ongizate sentsazioa estuki lotuta dagoela aldarte emozional positibo batekin.

Era berean, bezperan emozio negatiboak eduki izanak korrelazio nabarmena du ongizate maila txikiagoarekin (puntu bat inguru gutxiago); kezkatuta, triste, bakarrik edo haserre sentitu izanak eragin negatiboa du gure ongizatean.

"Etorkizunarekiko konfiantza" ere zuzenean lotzen da biztanleriaren ongizatearekin; eta, ongizatearen puntuazioan dagoen aldea ia bi puntukoa da etorkizunean erabateko konfiantza dutenen (7,8) eta inolako konfiantzarik ez dutenen (6,0) artean.

Osasun egoeraren hautemateak lotura estua du ongizate mailarekin

EAEko biztanleek 7,3ko puntuazioa ematen diote euren osasun egoerari, 0tik 10erako eskalan. Euren osasunarekin biztanleek duten poztasun maila ere oso ona da oraindik, 10etik 7,5ekoa, baina hamarren batzuk jaitsi da 2013tik (orduan 8,2koa zen).

Gainera, osasuna biztanleriaren ongizate sentsazioan erabakigarria den beste faktore bat da. Bai norberaren osasun egoeraren balorazioak, eta baita egoera horrekiko poztasunak, korrelazio positiboa dute biztanleek ongizate eskaileran euren burua kokatzen duten mailarekin; osasunaren balorazioa zenbat eta hobea, ongizate sentsazioa ere handiagoa da.

Norbere bizitzaren gaineko kontrolaren eta ongizatearen arteko harremana oso estua da

Euskadiko herritarrek uste dute euren bizitza kontrolatzen dutela, batez beste 7,5 10etik. Euren bizitza ez dutela kontrolatzen uste dutenen artean ongizate sentsazioa 5,3koa da, eta erabat kontrolatzen dutela uste dutenen artean, berriz, 7,8koa; bi puntu eta erdi handiagoa, beraz.

Datuek joera bera erakusten dute norberaren bizitzarekin egiten dena aukeratzeko askatasunari dagokionez. Hala, zenbat eta askatasun sentsazio handiagoa izan, ongizatea handiagoa da: 7,7 euren bizitza kontrolatzeko duten askatasunarekin oso pozik edo pozik daudenen artean, eta 4,4 batere pozik ez daudenen artean.

Familiaren edota lagunen babes garrantzitsua da ongizatea neurtzerakoan

2013tik behera egin du hein batean Euskadiko biztanleriaren familiarekiko eta harremanekiko poztasunak. Horrela, familiarekiko poztasuna 9koa izatetik 8,5ekoa izatera igaro da, lagunetik 8,3tik 8,1era, aisialdiarekiko 7,7 izatetik 7,3 izatera, eta harreman sentimentalekiko eta/edo sexuarekiko 7,9tik 7,2ra. Bizitzako alderdi horiekiko poztasunak lotura zuzena du biztanleriaren ongizate mailarekin.

Behar izanez gero lagunduko dizun norbait izatea, edota bizitzako gauza onak edo txarrak norekin partekatu izatea ere, kontuan hartu beharreko aldagaiak dira gizarte baten ongizatea neurtzeko garaian; babes hori dutenen eta ez dutenen artean ongizate mailan dagoen aldea puntu bat ingurukoa da.

Gainera, desberdintasun nabarmenak daude ezkontuta edo bikotekidea duten pertsonen, eta bananduta edo dibortziatuta edo bikotekiderik gabe dauden pertsonen artean; azken horiek maila baxuagoan kokatzen dira ongizatearen eskaileran.

Ongizatearekin lotutako beste faktore bat norberaren egoera ekonomikoaren balorazioa da

Euskadiko biztanleek euren etxeetako egoera ekonomikoaz egiten duten balorazioa nahiko altua da, eta % 87k uste dute oso edo nahiko ona dela; Europako batez bestekoa baino dezente handiagoa da portzentaje hori.

Aldagai hori ere zuzenean lotuta dago hautemandako ongizate mailarekin; hala, etxeko egoera ekonomikoa oso ontzat jotzen dutenen artean 7,7koa da ongizatea, eta oso txartzat jotzen dutenen artean, berriz, 5,2koa.

Inguruko egoeraren balorazioa neurri txikiagoan lotzen da ongizatearekin

Aukeratu ahal izanez gero, Euskadiko herritarren gehiengo handi batek (% 87) Euskadin bizitzen geratzea nahiagoko luke. Portzentaje hori ez da ia aldatu azken 20 urteetan. Euskaditik kanpo bizitzea nahiagoko luketenen ongizate maila txikiagoa dute (6,5) hemen bizitzea nahiago dutenek baino (7,2).

Gainera, gehienek (% 86) bizitzeko leku segurutzat jotzen dute Euskadi; % 11k diote ez dutela uste beren udalerria edo auzoa bizitzeko leku segurua denik. Euren herri edo auzoa bizitzeko leku segurutzat hartzen dutenek ere ongizate maila handiagoa dute (7,2), leku segurutzat jotzen ez dutenek baino (6,8).

Bestalde, biztanleriaren % 76k aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak oso edo nahiko handitzat jotzen dituzte. Baina aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunaren pertzepzio horrek ez du korrelazio nabarmenik ongizate sententziarekin.

Azkenik, gehienek uste dute Euskadiko ingurumena ona edo oso ona dela (% 78). Hala ere, eta Euskadiko ingurumenaren egoera hobeto baloratzen dutenen ongizate pertzepzioa zertxobait handiagoa den arren, ez dirudi hau ongizate sententzia modu esanguratsuan azaltzen duen aldagaia denik.

Ongizatea gehien azaltzen duten faktoreak dira osasuna, egoera ekonomikoa eta norberaren bizitzaren gaineko kontrol sententzia

Datu guzti hauekin aldagai anitzeko azterketa estatistikoak erakusten du honako hauek direla ongizatea gehien azaltzen duten faktoreak: norberaren osasunaren balorazioa, lanarekin eta hilabete bukaeran eskuragarri duten diruarekiko poztasuna, eta norbere bizitzaren gaineko kontrol sententzia. Batez ere, beraz, egoera pertsonalarekin zerikusia duten aldagaiak. Era berean, esanguratsuak dira baita ere etorkizunarekiko konfiantza eta bezperako sentimendu positiboak edo negatiboak. Aitzitik, testuinguruko aldagaiak, edo aldagai sozialak, ongizatean ematen den aldakortasunaren azalpen ereduak kanpo geratu dira.

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu norberaren ongizatea neurri handiagoan azaltzen dela kontu pertsonalekin zerikusia duten faktoreen bidez testuinguruari lotutakoekin baino; eta, bereziki, osasunarekin, diruarekin/lanarekin, familia/bikotekidearekin eta emozioekin lotutakoekin.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1. 505 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa \pm % 2,58koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2021eko abenduaren 13a eta 20a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak